

NAFARROAKO 2019KO XIII. ARTISAUTZA FERIAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

I. ANTOLATZAILEA, DATA ETA TOKIA

1. Nafarroako 2019ko XIII. Artisautza Feria Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak antolatu du.
2. Iruñeko Gaztelu plazan izango da, ekainaren 20tik 23ra bitarte.

II. FERIAREN ORDUTEGIA

EGUNA	ORDUTEGIA
Ekainak 20, osteguna	17:30etik 21:30era
Ekainak 21, ostirala	10:30etik 14:30era eta 17:30etik 21:30era
Ekainak 22, larunbata	10:30etik 14:30era eta 17:30etik 21:30era
Ekainak 23, igandea	10:30etik 14:30era eta 17:30etik 21:30era

Ordutegia luzatzeko aukera ere badago, jende ugari joaten bada. Antolatzaileak egun bakoitzean zehar hartu ahal izango du ordutegia luzatzeko erabakia, eta parte hartzen duten enpresa guztiek onartu egin beharko dute.

III. ETXOLEN PREZIOA ETA EZAUGARRI TEKNIKOAK

Ferian, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren stand bat egongo da, eta 37 etxola, hainbat lanbidetan diharduten artisautza-enpresentzat:

- 16 etxola handi, 4x3 metrokoak
- 21 etxola txiki, 3x2 metrokoak

PREZIOAK:

NEURRIA	PREZIOA
4X3 metroko etxolak	400 €
3X2 metroko etxolak	300 €

- Antolatzaileak egokitu ahal izango du neurri bakoitzeko etxola-kopurua.
- Hona hemen etxolen ezaugarriak: segurtasunerako pertsiana, aurrealde osoa irekita, ez labaintzeko oholtza, argia barnean, errotulazioa, eta apalak edo salmahaia jartzeko aukera, prezio berean.
- Etxolaren garbiketa ere barnean dago.
- Orobat, zaintza eta segurtasuneko zerbitzua ere egongo da Feria osoan, jendearentzat itxita dagoen ordutegian.
- Etxolak muntatzeaz arduratzen den enpresak erantzukizun zibileko aseguruia du hirugarrenentzat, instalazioak erabiltzearen ondoriozko kalteak estaltzen dituen. Antolatzaileak ez du erantzukizunik izango kalte pertsonalak eta materialari zein erakusten diren produktuei eragin dakiekeen kalteak gertatzen badira; hartara, parte hartzen duen artisautza-enpresa bakoitzaren ardura izango da erantzukizun zibileko banakako aseguruia izatea, behar izanez gero.

IV. IZENA EMATEKO PROZESUA

1. Eskaerak aurkezteko modua.

Eskaerak posta elektronikoz soilik bidaliko dira, helbide honetara: feria.artesania.navarra@navarra.es. Ez dira onartuko beste bide batetik aurkezten diren eskaerak.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauek osorik onartzen dituela.

Eskaera behar bezala bete ez bada edo eskatzen diren agiri guztiak erantsi ez badira, interesdunari komunikazio bat bidaliko zaio eskaeran adierazitako posta elektronikoko helbidera, eta bost egun naturaleko epea emango horretarako, errekerimendua bidali eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Epe hori igarotakoan interesdunak erantzun ez badu edo eskatutakoa behar bezala zuzendu ez badu, eskaera ez da onartuko.

2. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak jasotzeko epea 2019ko martxoaren 18tik apirilaren 5eko 24:00ak arte izanen da.

3. Parte-hartzaileek, eskaerek eta agiriekin bete beharreko baldintzak.

Parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute ondasun artistikoak eta jatekoak ez diren kontsumorako ondasunak sortzen, ekoizten, eraldatzen, konpontzen eta zaharberritzen dituzten pertsona fisikoak eta enpresek, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, nor bere artisautza-jardueran edo -lanbidean.
- b) Erakutsiko den produktua edo produktuak egokiak izatea jendeari zuzenean saltzeko, horien egilea erakunde eskatzaile bera izatea, eta askotariko eskaintza eta behar bezain zabala bermatzea.
- c) Dagokion administrazioak emandako artisautza-agiria indarrean izatea, edo baliokidea den edozein ziurtagiri.

4. Eskaerak eta agiriak aurkeztea.

a) Parte hartzeko eskaera aurkeztu denean, enpresa eskatzaileak oinarri hauetan finkatutako arau espezifikoak onartu eta men egiteko konpromiso atzeraezina hartzen du, baita antolatzaileak Feria ongi ateratzeko finkatu ditzakeen xedapen zehatzak ere.

b) Interesdunek **eskaera-inprimakia** deskargatu behar dute web-helbide honetan: http://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Comercio+y+artesania/Artesania/Feria+de+Artesania+de+Navarra+2019.htm. Behar bezala bete eta sinatu ondoren, dagokion moduan aurkeztu beharko dute parte-hartzea eskatzeko. Orobat, hona hemen zer agiri aurkeztu eta zer informazio adierazi behar duten:

- 1. NANaren fotokopia. Pertsona juridikoek enpresaren IFKren eta legezko ordezkariaren NANaren fotokopiak ere aurkeztuko dituzte.
- 2. Erantzukizunpeko adierazpena, zeinean jaso behar baita Ferian erakutsiko diren produktu guztiak originalak direla, eskatzailea bera artisau dela eta hark eginikoak direla, eta produktu horietako bat ere ez dela birsalmentakoa (eskaeraren eremuan erantsi da).
- 3. Administrazio publiko batek emandako artisau-txartelaren edo artisautza-lantegiaren egiaztagiriaren kopia. Agiri horiek guztiek indarrean egon behar dute; osterantzean, hura berritzeko eskaeraren frogagiria aurkeztu beharko da.
- 4. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan artisautza-jarduerari edo -lanbideari dagokion epigrafean alta emanda dagoelako ziurtagiri eguneratua, edo Zerga

Administrazioko Espainiako Agentziako (www.agenciatributaria.es) jarduera ekonomikoen erroldan zer egoeratan dagoen adierazten duen ziurtagiria.

5. Gizarte Segurantzako betebeharretan zorrik ez izatea: azken 6 hilabetetako autonomoen 3 ordainagiriren fotokopia (2018ko urritik 2019ko martxora, biak barne)
6. Bereizmen handiko sei argazki formatu digitalean; horietako bi standarenak izango dira, dena muntatuta (interesdunak feria batean parte hartzen duen lehen aldia bada, ez da beharrezkoa izango), eta gainerako lauak, erakutsi edo salduko diren produktuenak (ez dituzte bidali behar izango 2018ko Artisautza Ferian parte hartu zuten eta Nafarroako artisautza-enpresen erregistroan izena emanda dauden artisauek).
7. Ferian parte hartzen duenean erakutsi edo salduko dituen produktuen zerrenda generikoa (eskaeraren ereduan erantsi da).
8. Parte hartzeko produktuen, lehengaien, egiteko prozesuaren, erabilitako tekniken eta abarren deskripzio laburra (eskaeraren barnean).
9. Curriculum profesional laburra (Nafarroako artisautza-enpresen erregistroan izena emanda daudenak izan ezik).
10. Xaboiak prestatzeko eta kosmetika naturaleko lanbideen kasuan, Osasun Erregistroko ziurtagiria edo behar diren baimenak.

c) **Nafarroako artisautza-enpresen erregistroan izena emanda dauden enpresek ez dituzte agiri hauek aurkeztu behar izango:**

3. puntua)	Administrazio publiko batek emandako artisau-txartelaren edo artisautza-lantegiaren egiaztagiraren kopia
6. puntua)	Enpresak 2018ko edizioan parte hartu bazuen, ez ditu argazkiak zertan bidali
9. puntua)	Curriculum profesional laburra

- d) Gorago finkatutakoari eragin gabe, baliteke antolatzaileak beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio edo agiri gehigarriak eskatzea interesdunari, adierazitako datuak egiaztatze aldera.

Aurkezten diren agiriak ez dira itzuliko, eta antolatzaileak gordeko ditu.

- e) Aipatutako dokumentazioa antolatzaileen esku geldituko da, bai eta gordeko Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Segurtatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arauen arabera, eta deseginen da dokumentazioan adierazten diren epeak iragan ondoren.
- f) Antolatzaileek eskaera guztiei bidaliko diete mezu elektronikoa eskaera erregistratu dela egiaztatuz. Mezu hori jasotzen ez baduzu, horrek esan nahi du ez dela zure eskaera behar bezala tramitatu, eta antolatzaileekin harremanetan jarri beharko duzu posta elektronikoaren bidez:
feria.artesania.navarra@navarra.es

Oharrak: eskaerarekin batera doazen agiri guztiak eskaneatu egingo dira eta posta elektronikoko mezuari erantsiko, eta zenbakitu egingo dira gorago adierazi den ordenari jarraituz.

Imitaziozko bitxigintzakoak zein bitxigintzakoak ez diren lanbideen kasuan, erakusten diren produktuen % 20 baino ez dira izango imitaziozko bitxigintzakoak.

V. PARTE-HARTZAILEAK HAUTATZEKO PROZESUA

1. Batzorde bat eratuko da Ferian parte hartzeko ongi aurkeztu diren eskaerak aztertze aldera; zehazki, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak izendatutako hiru ordezkariak eta Artisautzako Aholku Kontseiluak izendatutako bi kidek osatuko dute.
2. Ferian, 37 etxola egongo dira hainbat lanbidetan diharduten artisautza-enpresentzat. Hasiera batean, horietatik 25 etxola Nafarroako artisautza-enpresen erregistroan izena emanda dauden artisautza-enpresentzat gordeko dira.
3. Hala, 37 parte-hartzaileak hautatuko dira, eta horiez gain, beste bi enpresa sektore bakoitzeko, ordezkari moduan, hasieran hautatutakoaren artean bazarik gertatzen bada.
4. Feriako parte-hartzaileak eta ordezkari enpresak gorago aipatutako Batzordeak aukeratuko ditu, jarraian azalduko diren prozedurarekin eta irizpideekin bat etorriz. Helburua da Feriako eskaintza askotarikoa, erakargarria eta interesgarria izatea, interesa piztea eta bai turistak bai jendea oro har erakartzea.

Hautaketa-prozedura eta irizpideak:

- Lehenik, eskaerak sektoreen arabera sailkatuko dira, artisautzako lanbide bakoitza gauzatzeko behar den lehengaia kontuan hartuta: zura, larrua, papera, burdina, zeramika, harria, beira, bitxigintza, ehuna, etab.
Lanbideren bateko enpresa bakarra badago, horrelako guztiak “Bestelakoak” atalean sailkatuko dira, hautaketa egiteko.
- Era berean, jarduera-sektore bakoitzean, eskaerak bi taldetan sailkatuko dira: **Nafarroako artisautza-enpresen erregistroan izena emanda** dauden enpresak eta gainerakoak.
- Hasiera batean, gehienez bost parte-hartzaile hautatuko dira sektore bakoitzean; horretarako, aski eskaera egonez gero, Nafarroako enpresak aukeratuko dira aurrena. Kupo hori Nafarroako enpresekin betetzen bada, baliteke seigarren parte-hartzaile bat onartzea Nafarroakoak ez diren gainerako eskaeren artean.
- 2018ko XII. Ferian etxolarik onenaren eta pieza onenaren sariak irabazi zituzten enpresek doan parte hartu ahal izango dute 2019ko XIII. Ferian, eskaera aurkezten badute.

Jarraian, Nafarroako artisautza-enpresak eta gainerako enpresak aukeratzeko erabiliko diren baremoak adieraziko dira.

Nafarroako artisautza-enpresak (gehienez, 25 etxola)

Jarduera-sektore bakoitzean, eskaera-kopurua handiagoa bada etxola-kopurua baino, eskaerei baremoa ezarriko zaie irizpide hauei jarraituz:

- a)** Nafarroako Artisautza Feriako **aurreko lau edizioetan parte hartu izana** (2018, 2017, 2016 eta 2015):

Ez du edizio batean ere parte hartu	4 puntu
Edizio batean edo bi ediziotan parte hartu du	3 puntu
Hiru ediziotan parte hartu du	2 puntu
Lau ediziotan parte hartu du	1 puntu

b) Artisautza-elkarte bateko kide izatea

Bi puntu emango zaizkie aktibo dagoen artisautza-elkarte bateko kide diren eskatzaileei. Horretarako, elkarteko idazkariak emandako 2019ko ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c) Artisautza-enpresak jasotako **sariak edo aitorpenak**. Behar bezala frogatu beharko dira. Hala, puntu bat emango da azken bost urteotan jasotako eta frogatutako sari edo aitorpen bakoitzeko; gehienez, bost puntu emango dira.

d) Ferian zehar, artisautza-lanbideekin lotutako lanak egitea

Puntu bat emango zaie etxolan bertan artisautza-lanbideekin lotutako erakustaldiak egiten dituzten eskatzaileei; horretarako, dagokion atala bete beharko dute eskaera-inprimakian.

Berdinketarik gertatzen bada, lehenago aurkeztutako eskaerari emango zaio lehentasuna. Hala, aintzat hartuko da eskaera zer egunetan eta zer ordutan aurkeztu zen, antolatzaileak adierazitako posta elektronikoko kontuan begiratuta.

Gainerako artisautza-enpresak

Jarduera-sektore bakoitzean, eskaerei baremoa ezarriko zaie irizpide hauekin bat etorriz:

a) Produktuen kalitatea, diseinua, originaltasuna eta aniztasuna, eta standaren amaierako itxura. Gehienez, 20 puntu emango dira, xehetasun hauekin:

- Produktuen kalitatea (1 eta 5 puntu artean)
- Standaren amaierako itxura (1 eta 5 puntu artean)
- Diseinua eta originaltasuna (1 eta 5 puntu artean)
- Aurkeztutako proposamenaren aniztasuna (1 eta 5 puntu artean)

Batzordeak puntuak emango ditu aurkeztutako agiri grafikoak eta sektore bakoitzerako jasotako eskaera-proposamenak kontuan hartuta.

Irizpide honi begira, eskaera bakoitzak 20 puntu jaso ditzake gehienez; horretarako, batzordekideek emandako bost puntuazioen batezbestekoa erabiliko da.

b) Artisautza-enpresak jasotako **sariak edo aitorpenak**, behar bezala frogatuta. Puntu bat emango da azken bost urteotan jasotako eta frogatutako sari edo aitorpen bakoitzeko; gehienez, bost puntu emango dira.

c) Feria honetako aurreko lau edizioetan parte hartu izana:

Ez du edizio batean ere parte hartu	4 puntu
Edizio batean edo bi ediziotan parte hartu du	3 puntu
Hiru ediziotan parte hartu du	2 puntu
Lau ediziotan parte hartu du	1 puntu

d) Ferian zehar, artisautza-lanbideekin lotutako lanak egitea

Puntu bat emango zaie etxolan bertan artisautza-lanbideekin lotutako erakustaldiak egiten dituzten eskatzaileei; horretarako, dagokion atala bete beharko dute eskaera-inprimakian.

Berdinketarik gertatzen bada, lehenago aurkeztutako eskaerari emango zaio lehentasuna. Hala, aintzat hartuko da eskaera zer egunetan eta zer ordutan aurkeztu zen, antolatzaileak adierazitako posta elektronikoko kontuan begiratuta.

Akta bat egingo da hautaketa-prozesuaren emaitza jasotzeko, eta batzordekide guztiek sinatuko dute.

Parte-hartzaileen eta ordezeko enpresen zerrenda artisautzari buruzko [Nafarroako Gobernuaren web-atarian](#) argitaratuko da.

VI. ETXOLAK ESLEITZEA

Antolatzaileak erabakiko du etxolak eta erakusketa-espazioak nola esleitu behin betiko. Halaber, behin betiko esleipena egiteaz gain, erakusketa-espazioak aldatu ahal izango ditu beharrezkoa izanez gero.

VII. TASAK ORDAINTZEA

Hautatzen diren enpresek dagozkion zenbatekoak ordainduko dituzte parte hartzeko, etxolaren alokairu moduan. Bost egun naturaleko epea izango dute horretarako, antolatzaileak eskaera onartu dela berretsi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Ordainketa egiteko, antolatzaileak ordainketa-gutunak bidaliko dizkie hautatutako parte-hartzaileei. Hautatzen diren enpresek ordainketaren banku-

ziurtagiriaren kopia bidali beharko diote antolatzaileari, aipatu epearen barruan. Posta elektronikoko helbide honetara bidali behar dute: feria.artesania.navarra@navarra.es
Epe hori igarotakoan ordainketa egin ez bada, parte hartzeko aukera emango zaio atzera egin duen enpresaren sektore bereko hurrengo enpresari.

Etxola ordaindutakoan, uko egiten dutela adierazten duten artisautza-lantegiek galdu egingo dute ordaindutako zenbatekoa. Ez da zigor hori ezarriko ezinbesteko larri batek eraginda bada, baldin eta behar bezala frogatzen eta bajaren ondoriozko toki hutsa bete ahal bada.

VIII. SARIAK

Bi lehiaketa eginen dira eta bertan parte hartzen ahalko dute ferriako parte-hartzaile guztiek, hala nahi badute.

- **Erakustoki onenaren saria** (besteak beste, honako hau baloratuko da: itxura, ordena, osaera, piezen disposizioa, irudi globala eta erakustokiaren erakargarritasuna)
- **Pieza onenaren saria** (kontuan hartuko da originaltasuna, diseinua eta kalitatea).

Sari gisa, Nafarroako artisautzaren pieza sinboliko bat emanen da eta izen-ematearen kuotaren zenbatekoa itzuliko da.

IX. PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Parte-hartzaile bakoitzak konpromiso hauek hartuko ditu:

1. Berak egindako produktuak saldu edo erakutsiko ditu; parte hartzeko eskaeran adierazi du zein diren, eta horiekin bat etorri behar du artisaua dela egiaztatzen duten agirietan agertzen den lanbideak edo lanbideek. Ez da onartuko parte-hartzaileak eginak ez diren produktuak birsaltzea, artisautzakoak ez direnak.
2. Salbuespen moduan, interesdunak eginak diren baina parte hartzeko eskaeran jaso ez diren produktuak erakustea onartuko da, baldin eta Feriaren kudeaketa teknikoaz arduratzen den erakundeak baimena ematen badu.
3. Etxola zabalik egongo da finkatutako ordutegian zehar, eta behar bezalako arreta emango du artisauak berak; osterantzean, horren berri eman behar dio antolatzaileari aldez aurretik.
4. Ferian zehar etxolan erakusten dituen produktuen gaineko erantzukizuna bere gain hartuko du.

5. Etxolan askotariko eskaintza eta produktu-kopuru nahikoa egongo dela bermatzea, ez dadin hutsik gelditu produktuak saltzeagatik. Orobat, produktu horiek eskaera-inprimakian jasotakoen adierazgarri izango dira.
6. Produktuak merkaturatzeari buruzko araudia zein kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei buruzko indarreko araudia beteko ditu.
7. Merkataritza ez-egonkorra arautzen duen Iruñeko Udalaren Ordenantza beteko du.
8. Etxola eta Feriako gainerako altzariak zaindu eta egoera onean izango ditu.
9. Feria egingo den ingurua zaindu eta egoera onean izango du; hartara, etxola garbi edukiko du eta sortzen dituen hondakinak edukiontzi egokietan utziko ditu. Era berean, ez du egingo Feriako giroa eta inguruko espazioa kutsatu, hondatu edo zikindu ditzakeen jarduerarik.
10. Ez ditu merkataritza-sustapenak egingo; esate baterako, eskaintzak, likidazioak, beherapenak, baita produktuak saldu edo erakustea ez dakarten beste batzuk ere.
11. Antolatzailearekin eta Feriako instalazioez arduratzen den enpresarekin elkarlanean arituko da, Ferian dena behar den moduan joan dadin.

X. BESTE KONTSIDERAZIO BATZUK

1. Antolatzaileak jendearentzat arriskutsuak edo kaltegarriak diren artikulak kenarazi ahal izango ditu egokitzen jotzen badu, eta ez die jabeen kalte-ordaina eman behar izango.
2. Antolatzaileak argazkiak atera ahal izango dizkie eta filmatu ahal izango ditu bai etxolak bai haietan erakutsitako produktuak; orobat, irudi horiek bere base dokumentaletan txertatu ahal izango ditu, eta artisautza sustatzeko baino ez ditu erabiliko, bere eskumenak gauzatuz.
3. Feriako antolatzaileak ez du erantzukizunik izango Ferian zehar piezak hondatzen badira edo lapurtzen badituzte.
4. Antolatzaileak Feriaren datak aldatu ahal izango ditu, baldin eta kausak ongi arrazoitu eta justifikatzen badira. Nolanahi ere, ez du erantzukizunik izango horren ondoriozko aldaketen gainean. Feria hasiera batean aurreikusitako egunetan egin ezin bada, antolatzaileak beste data batzuk proposatuko dizkie hautatutako enpresei, eta haiekin berretsiko du ea data berrietan parte hartzeko interesa duten.



Parte hartu nahi ez badute, etxolaren ordainketa itzuli egingo da, eta ordezkoen zerrenda erabiliko da bajen ondoriozko toki hutsak betetzeko.

5. Feriarekin lotutako edozein gairi buruzko erreklamazioak eskaera aurkeztu zen posta elektronikoko helbide berera bidaliko dira; mezu horietan, erreklamaziogilea identifikatu behar da, eta erreklamazioa azaldu.
6. Oinarrietan jaso ez den zer bait gertatzen bada edo ezustekorik badago, Feriako antolatzaileak hura hoberen joateko lagungarriena dena ebatziko du.